

## IÑAKI GOITIA, TXAPELDUN

Gabonetan ospatu izan da «Urrezko saski» txapelketa Gernikako Jai-alai frontoi ederrean. Errege egunean jokatu zan finala. Iñaki Goitiak eta Juantxu Jauregik osoturiko bikoteak irabazi izan dabe txapelketa sonatu ori.

Iñaki Goitiagaz alkarrizketa bat izateko asmotan, bere jaiote txera jo neban Errege ondorengo domeka arratsaldean. Ta an aurkitu neban txapeldun iaioa. Baita bere guraso, neba-arreba, emazte eta semetxoak be. Ondo baiño obeto artu ninduen. Karmenek, (Iñakiren ama) tostada goxo-goxoak, anis tantakin bustita, serbidu eustazan. Ez dago niretzako gozoki apetitosoagorik! Zelan jakin ete dau etxeoandre fin orrek nire «debiltasuna»...

Ta gero, beko suaren epeltasunean, alkarrizketa luze au euki izan neban Iñakigaz. Iñongoko traba barik erantzun be! Eskertzekoa bere patxada eta patzientzia!


*A. Olea.*– Pozik «Urrezko saskia» irabazteaz?

Iñaki Goitia.– Bai, oso pozik. Ori, niretzako, oso inportantea izan da!

*A. O.*– *Iñoiz, beste txapelketarik irabazi izan dozu?*

I. G.– Bai, orain dala zazpi urte edo, Miarrantzen «Guante de oro» txapelketa. Gero, Miarrantzen bertan, «Master» txapelketa be lortu neban.

INARI GOITIA TXAPELDUN



KONTU-KONTARI

*A.O.– Zelan sortu jatzun pelotari izateko gogoaz?*

I.G.– Beno, anai zarra, Joakin, pelotan ebillen, ta Markiñara joateko bildur edo, ensaietako laguna bear ebala edo, orrela asi nintzan beragaz Markiñara joaten... Lekoizi bost pezeta ordaindu ta egunero, goizeko zazpi t'erdietan joaten giñan Joakin eta biok. Bein, egun batean, Joakinen entrenatzaileak esan eustan: «!l, ik pelotan eingok-ta, botaik pelota au frontisera!». Artu zestea ta lenengo pelotia zuzen bota neban frontisera. Gero saiatu nintzan, amabost minutu inguru, bota ta bota, pelota bat bera be ezin geiago frontisera bota... Olantxe asi nintzan pelotan!

*A.O.– Zergaitik «zageru», atzelari, ta ez aurrelari?*

I.G.– Entrenatzaileak ipini nindualako atzean jokatzten.

*A.O.– Zeri itzi bear izan deutzazu pelotari izateko?*

I.G.– Ezeri bere ez! Orixe gustatzen jatan. Ta gero gurasoak be: «Eik pelotan nai ezpadok ikasi» esaten eusten. Amairu urtekin asin nintzan ta amasei urtekin firmauta neukan kontratua Ameriketara joateko. Jokatzten genduzan partidua Mutrikun eta afisiñoa geitzen...

*A.O.– Orduan, ez dozu gurasoen eragozpenik izan?*

I.G.– Gurasoenkandik ez dot euki sekula be eragozpenik! Zestua be beti barrixe. Motorra be, neuk nai nebana, erosi eustan aitak. An joaten nintzan, neure motorrean burrunbada baten, Markiñara ensaietan pozik. Ta poltsikorako be beti gurasoen eskupekoa.

*A.O.– Zenbat urtekin Ameriketara?*

I.G.– Amazortzi urtekin! Floridan egin nebazan iru urte. Andik Madrilerako kontratu on bat egin neban, baina Madrileko frontoia ezan iñoiz zabaldu. Ta barriro be Ameriketara, Connecticutera, ain zuen, beste sei urtetan. Guretzako gauzarik onena izaten zan, Ameriketetan sei illabetetan jokatu eta emen beste lau illabetetan.

*A.O.– Zelako pelotazalea da amerikanu jentea?*

I.G.– An ez da jokatzeko partidurik ogeitamarrera edo ogeitamabostera. An «kinielak» jokatzeko dira zazpi tantura. Astean berderatzi ekinadi, goizean eta gabeen. Egutero zortzi ordu gutxienez frontoian sartuta; amairu «kiniela» goizean eta beste amairu gabeen.

*A.O.– Zelako bizimodua Ameriketean?*

I.G.– Frontoi bakoitzean, 42 edo 44 pelotari gengoan. Geienetan, geu pelotariok alkarrekin ibiltzen giñan ta bertakoekin ez genduan beste munduko artu-emonik izaten. Geure artean, iru edo lauk artzen genduan etxe bat eta bakoitxak eukan bere gelea eta bere kotxea. Jatekoa danon artean egiten genduan. Olan bizi giñan geienok...

*A.O.– Mexikon be jokatu dozu, ezta?*

I.G.– Bai, azkenengo urte betean. Ta pozik. Astean partidu bi jokatu ta denporea sobra geunkan mendira joateko, lo egiteko, edozetarako...

*A.O.– Zelan dabil Mexikoko frontoia?*

I.G.– Onduen dabillen frontoia Mexikokoa da. Jente asko joaten da frontoira. Diru asko jokatu. Judixuek eta arabiarrek dira diru geien jokatzeko dabezanak. Bertako jentea ez doa ainbeste.

*A.O.– Ze gertatzen da Mexikon, Chiapas aldetan, erria armetan jarteko?*

I.G.– Gosea! An dagona da, zu zara pobre-pobrea edo aberats-aberatsa. Jente medixakorik ez dago. Diru asko edo diru gutxi. Pobrezia begi bistan dago Mexikon!

*A.O.– Ameriketako komunikabideetan aipatzen dira emengo goraberak?*

I.G.– Norteamerikan ixte ezebez! Mexikon, bai oster! Mexikon badakie bereizten zein dan espainola eta zein euskalduna.

Joaten bazara, esaterako, taxi baten, danak esaten dautsue. Emengo «errefuxiau» asko dago Mexikon. Gerra denpora-koak eta oraingoak.

*A.O.– Badaukazue olako preparaziño berezirik?*

I.G.– Bai, esaterako, Mexikon beartuta gengozan, geure entrenatzaileaz pare bat bider menditik ibillaldi luze bat egitera. Baita jimnasia eta olako saioak egitera. Frontoian bi edo iru mediku geunkazan eta eurok esaten euskuen zelan preparau, ze jan eta beste olako gauzak. Ta emen, ostera, ez daukagu olakorik. Emen norbere kontura...



*A.O.– Zure aitagiñarreba pelotari aundia izan zan, emoten dautsu kontsejurik?*

I.G.– Bai, ensaiu be beragaz beti. Ta gaiñera masajitea danez, berak emoten daust masajea be. Tomas da nire preparatzailea.

*A.O.– Pelotan izan dozuzan momentu pozgarrienak?*

I.G.– Irabazi izan dodazan txapelketak. Guretzako txapelketak dira gauzarik onenak. Dirua or egoten da. Ta zeure fama-txo be or artzen dozu. Ta txapelketan paper ona egiten badozu, urrengo txapelketara seguru deituko dautsuela...

*A.O.– Larrienak?*

I.G.– Duda barik, pelotariok egin genduan iru urteko huelgea! Momentu txarrena nire bizitzan orixe izan da. Ez dira izan urte motxak!

*A.O.— Ze eskatzen zenuen, ba?*

I.G.— Erretiro on bat! Bai geuretzako eta bai geure andra eta seme-alabentzako. Ta bigarren gauzea zan, egiten genduzan kontratuak errespetatza. Enpresak nai ebena egiten euskuen ta eskatzen genduen, bein firmau ezkeru, kontratu ori errespetatzea. Ez genduan beste munduko gauzarik eskatzen.


*A.O.— Lortu, bai, ezer?*

I.G.— Itxaropentsu asi giñan. Laureun eta gora giñan Ameriketako amairu frontoietan jokatzen genbiltzazan euskaldun

pelotariak. Pentsetan genduan, ez egoala ainbeste amerikano orrenbeste frontoietan jolasteko. Baiña ikusi genduan «eskirolez» inguratirik gengozala. Bai euskaldunak, bai amerikanoak, bai frantsesak eta alderdi guztietakoak. Ta orixe izan zan gure ondamendia!

*A.O.— Burrugarik pelotarien artean?*

I.G.— Klaro! Sinistu be ezin leike egin an pasau zanz! Lagunik aundienak betirako asarretuta. Alkarrekin barbarik ere ez. Batek «eskirol» jokatu badautsu, alako pertsoniaz, ezin dozu sekulo barbarik be egin. Ta euskaldun pelotari zarrak esaten eutsuen, izenak be esango neukez, baiña obeto ez esatea, huelgara urten bear dozue. Guk urten genduan huelgara ta eurak asi ziran «eskirol» jokatzen. Ta gu gazteok kanpoan. Erretirauta edo erretiratzeko egozanak asi ziran «eskirol» jokatzen ta



or sortu zan gorrotoa itzela, benetan. Huelga ori dala-ta, ainbat famili apurtu zan eta ainbatek itzi eben pelotari izateari be. Ni neu azkeneraino, tinko mantendu nintzan baiña asko sufriduta. Etxetik kanpora, ain giro txarrean, iru urte luze egiten dira.

*A.O.– Zelan ikusten dozu zesta puntako egoera?*

I.G.– Orain sei urte baiño obeto ikusten dot. Ta oraindiño obeto ipiñiko da. Or dago telebistaren laguntasuna. Badagoz dirua emoten dabez «esponsorrak». Beste aldetik, mundu guztian, Italian, Madrilen, Miarritzen, Ameriketan, emen, txapelketak ipintea nai dabez. Bai, obeto ipiniko da zesta puntea!

*A.O.– Zeure gaitasun edo kualitate onenak pelotan jokatzeke?*

I.G.– Pelotea domiñau. Pelota astuna atera ta pelotea domiñau eta gero domiñau ondoren aurrera joan.

*A.O.– Bikotea osotzerakoan, pelotan onduen nogaz konpon-tzen zara?*

I.G.– Gaur egunean, Arrasategaz edo Katxin Uriartegaz.

*A.O.– Kaskoaren alde?*

I.G.– Bai, bai, ni neuri esango baleuste kasko barik jokatu bear dodala, ez dakit jokatuko neukenik be! Iñoiz ukondoan edo aurpegian jo ta luze bota nabe frontoian.

*A.O.– Lenago jokatzen eben, ba, kasko barik be?*

I.G.– Baiña orduan beste modu batera jokatzen zan. Ezegon «erreboterik», ez «bote korridorik», ez «bi ormarik», «ez kostaurik». Pentsau, lena juezak sillan jarrita eta puru aundi bat erreten egoten ziran. Orduan pelotak be astunagoak eta mote-lagoak ziran, eta botera jokatzen zan dana. Publikua bera be sare barik egoten zan begira...

*A.O.– Lesiñorik?*

I.G.– Sekula bere ez! Iñoiz orkatillea biurtu edo gerriko miña edo besoko miña. Lau edo bost eguneko lesiñoa. Gauza aundirik ez!

A.Q.– *Joakinek baiño suerte ohea?*

I.G.– Bai, orain arte! Anai zarrak ez dauko, ez suerte ederra!

A.O.– *Gernika, Markina, Durango?*

I.G.– Astunena Gernikako frontoia da. Errebesaz jokatu bear da asko. Ni neuri geien gustatzen jatana, Gerniakoa da. Frontoirik naturalena, Markiñekoa, bai errebesaz bai eskumaz jokatzeko, ez dago Markiñako frontoia lakorik. Durangokoa txikiena danez, eskumaz jokatzeko onena.

A.Q.– *Frontoietan dabizan «korredoriak» edo artekariak ez zaitue aspertzen?*

I.G.– Ez! Oituta gagozanez ez gaitu aspertzen. Batzutan, azkenengo tantuetan enpaterik badago, geldi egon bear izaten dogu. Orduan pixkat nerbioso jartzen zara ta otzitu be bai. Iñoiz, Mexikon, egon gara geldi amabost minututik gora. Badakigu, gaiñera, apostuetatik bizi garala.

A.O.– *Badago dopin-kontrolik?*

I.G.– Ameriketean egunero egiten euskuen kontrola. Batzutan bi bider, goizean eta gabeen. Ta gobernuak aginduta. Ta zeozer zikinean arrapatu ezker, ez daukazu geiago jokatzetik. Alkola bera be dopiña zan! Emen, Euskalerrian ez dago dopin-kontrolik.

A.O.– *Sasoirik onena pelotan egiteko?*

I.G.– Pelotari zar on askori entzun izan dautset, edade onena 30 urtetik 38 bitartean dagola.

A.O.– *Ezagutu dozun pelotari onena?*

I.G.– Txikito Bolibar! Askotaz gaiñera. Orrek dana izan dau ona.

A.O.– *Ze kriterio dago gerriko gorriaz edo urdiñaz jokatzeko?*

I.G.– Onenak, faborituak, beti gerriko gorriaz. Enpresaren gauzea izaten da ori. Nik ikusi izan ditut pelotari batzuk, ez dabela nai izan gerriko urdiñaz jokatu ta zelako istilluak sortu



izan dabez frontoiko geletan. Kriterioa, faborituak gorriaz eta besteak urdiñaz.

*A.O.– Zure anai gaztea, ezkertia da, ze bentaja eta ze eragozpen dauko zestan jokatzeko?*

I.G.– Badaukoz bere bentajak eta bere eragozpenak. Bentajea, errebesaz pelotea geiago astintzen dala. Errematau be obeto. Eskerreko orman pelotea obeto sartu. Eragozpenik nabarierena, sakea ataratzeko orduan. Ortxe ibilten dira estu ezkertiek.

*A.O.– Inoiz jokatu izan dozue anaiok alkarren aurka?*

I.G.– Ez, entrenamentuetan izan ezik, inoiz ere ez.

*A.Q.– Pelotari izan ez baziña, zer izango ziniñan?*

I.G.– Txirindulari edo fubolista. Bizikleta zuri zar bat neukan eta beragaz Lekoizko aldapan gora ez egoan niri irabaztekorik. Santa Eufemiko aldatza be ondo igoten neban. Kontuan euki, orduan ezegoala porlanik. Igoten ondo ibilten nintzan...

*A.O.– Egunkarian irakurri danez, Barrondok esan ei dau: «bizkaitarra ez bazara, jai dagola zesta puntan?»*

I.G.– Ori ez da egixe? Mokordo pilloa be izaten da egiten dan modukoa! Periodikuak be ekarten dabe periodistak ipinten dabena. Berak neuri esan eustanez, ori guzurra da.

*A.O.– Osaba bat praille, izeko bat monja, ez dozu inoiz pentsau praille edo abade edo misioneru izatea?*

I.G.– Ez, ba! Tia monjeak sarritan esaten eustan joateko praille, munduari lagundu egin bear dautsagula, ta abade eta praille gitxi dagozala-ta. Baiña neure burutik ez jat inoiz bere pasau!

*A.O.– Ze estimatzen dozu geien lagunengan?*

I.G.– Sekretorik alkarrekin ez eukitea!

*A.O.– Ze «hobby» daukazu?*

I.G.– Probak! Herri kirolak!

*A.O.– Tourreko mendiko etapa bat, partidu futbol aundi bat San Mamesen, pelota partidu eder bat Gernikan, erri kirol proba desafio bat Nabarnizen.*

I.G.– Probea! Dударik bere ez! Nabarnizera zuzen, zuzen.

*A.O.– Toki bat bizitzeko?*

I.G.– Euskalerria! Ez dago olakorik bizitzeko!

*A.O.– Baserria ala kalea?*

I.G.– Baserria! Baiña dirurik ez badago pisu baten sartuta bizi bear.

*A.O.– Zelako erlijio giroa dago Ameriketean?*

I.G.– Erlijio giro ona! Batez ere, Mexikon! Ni neuk ez dot olakorik ezagutu neure bizitzan. Ikusi barik sinistu be ezin leike egin. Domeketan, esaterako, Guadalupeko santutegian sartu be ezin leike egin. Zelako jentetza erresetan edo belauniko edo kantetan! Itzela da angoa!

*A.O.– Ze da zuretzat familia?*

I.G.– Dana! Niretzako dana! Emen danok gara gu, bai lengusu-lengusiña, bai tio-tia, alkarregaz egotekoak, kontuak esan, barre galantak egin. Beti izan gara «pelota» bat. Amerikanuen eta euskaldunon artean dagoan diferentzi andiena famili giroan ikusten dot nik. Ango gazteak, bein amabost-amasei urtekin etxetik kanpora doaz bizitzen eta euren bizi modue egiten dabe. Emen ezkondata be etxean zagoz gurasoekin. Berrogei urtekin be aita eta amagaz bizi zara. Emengoa ezin leike konparau angoaz.

Emengo familiko kariñorik ez da ikusten an. Pixkat geiago Mexikon baiña Norteamerikan pentsau bere ez.

*A.O.– Emendik eun urtera, Zuberoko umetxoak euskeraz egingo eta dabe berba?*

I.G.– Dударik ere ez! Euskerea izango da lenengo izkuntza ta gero erdere. Ta gero ikusiko da zer datorren. Ori bai, zen-